

PLENTZIAKO ARPILAO INGURUA AKTIBATU ETA BERRONERATZEKO PROIEKTUA

Posted on 19/05/2025 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Berroneratzeko estrategia integrala](#), [Hiri aktibazioa eta berroneratzea](#), [Plentzia](#)

[Plentziako Udalak](#) Naider enpresaren laguntza teknikoa izango du, Arpillao ingurunea erabat berroneratzeko aktibazio estrategikorako eta aukerak identifikatzeko proiekturako, [PiE-EHU](#)rekin lotuta.

Arpillao ingurua Plentziako hondartzatik metro gutxira dago, eta gaur egun erabilerarik gabeko aparkaleku bat du, bere egiturazko narriaduragatik. Proiektu honen bidez, berroneratzeko estrategia integral bat bultzatzeko aukera planteatzen da, egiturazko konponketatik harago begiratuko duena eta ingurune osoa modu jasangarrian eta tokiko eta eskualdeko premiekin koherente izateko aukera emango duena.

Ondoriozko estrategia funtsezko tresna izango da Arpillao etorkizuneko esku-hartzeak bideratzeko, Plentziak finkatu nahi duen hiri-ereduarekin bat datorren eraldaketa koherentea ziurtatuz.

